

Consejo Escolar de Navarra
Junta Superior de Educación



Nafarroako Eskola Kontseilua
Hezkuntzako Batzorde Nagusia

8/2014 Irizpena

Ondoko zirriborroaren ganean: Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoko hizkuntza irakaskuntzetako C1 mailaren curriculum, Nafarroako Foru Komunitaterako, ezartzen duen foru dekretua.

Nafarroako Eskola Kontseiluaren osoko bilkurak 2014ko uztailaren 3an onetsia

<p>Pedro González Felipe jn. Kontseiluburua</p> <p>Ignacio Iriarte Aristu jn. Idazkaria</p> <p>Santiago Álvarez Folgueras jn. Guraso elkarteen federazioetako ordezkaria (HERRIKOA)</p> <p>José Luis Asín Buñuel jn. Administrazioko ordezkaria</p> <p>Marcelino Azcoiti Alonso jn. Toki entitateetako ordezkaria</p> <p>Pedro María Baile Torrea jn. Guraso elkarteen federazioetako ordezkaria (CONCAPA)</p> <p>Fernando Barainca Lagos jn. Ikastetxe pribatuetako irakasleen ordezkaria (FSIE-SEPNA)</p> <p>Iñaki Berasategi Zurutuza jn. Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria (LAB)</p> <p>Aurora Bernal Martínez de Soria and. Unibertsitateetako ordezkaria (Nafarroako Unibertsitatea)</p> <p>Camino Bueno Zamarbide and. Ikastetxe publikoetako zuzendarien ordezkaria</p> <p>Ernesto Delas Villanueva jn. Guraso elkarteen federazioen ordezkaria (SORTZEN)</p> <p>Jesús M^a Ezponda Iradier jn. Ikastetxe pribatu itunduetako zuzendarien ordezkaria</p> <p>Francisco José Flores jn. Enpresarien elkarrekin ordezkaria</p> <p>Maximino Gómez Serrano jn. Hezkuntza Administrazioko ordezkaria</p> <p>Carmen M^a González García andrea Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria</p> <p>David Herreros Sota jn. Hezkuntza Administrazioko ordezkaria</p> <p>Iñigo Huarte Huarte jn.</p>	<p style="text-align: center;">8/2014 Irizpena</p> <p>2014ko uztailaren 3ko Nafarroako Eskola Kontseiluaren osoko bilkuran parte hartu zuten ondoan aipatu ditugun lagunek. Bertan irizpena eman zen, aldeko 18 botorekin eta abstentzio 1ekin, ondoko egitasmoaren gainean: Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoko hizkuntza irakaskuntzetako C1 mailaren curriculuma, Nafarroako Foru Komunitaterako, ezartzen duen foru dekretua.</p> <p>1 - ARAU AURREKARIAK.</p> <p>Europako Kontseiluak, kontseilu hori osatzen duten herrialdeen hizkuntza aniztasuna kontuan harturik, hizkuntzaren jakite mailen erreferentzia esparru bat ezartzeko xedea hartu zuen bere gain, horrela hizkuntza guztien irakaskuntzan eta ikaskuntzan koherentzia bultzatu ahal izateko. <i>Hizkuntzetarako Europako erreferentzia marko bateratua</i> 2001. urtean¹, Hizkuntzen Europako Urtean, argitaratu zen. 2008an, Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak uztailaren 2ko CM/Rec 2 Gomendioa² onetsi zuen, eta <i>Hizkuntzetarako Europako erreferentzia marko bateratuaren</i> erabilera bultzatu estatu kideetan.</p> <p>Abenduaren 29ko 1629/2006 Errege Dekretuak³ hizkuntzen irakaskuntzako erdiko mailako eta maila aurreratuko curriculumaren oinarriko alderdiak</p>
--	---

¹ Common European Framework of Reference for Languages: Learning, Teaching, Assessment. Strasbourg: Council of Europe, 2001

² Europako Kontseilua. CM/Rec (2008) 7 Gomendioa, uztailaren 2koa, Hizkuntzetarako Europako erreferentzia marko bateratuari eta eleaniztasunaren sustapenari buruzkoa.

³ 1629/2006 ERREGE DEKRETUA, abenduaren 29koa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak arauturiko araubide bereziko hizkuntzen irakaskuntzako curriculumaren oinarriko alderdiak finkatzen dituena.

<p>Hezkuntza Administrazioiko ordezkaria José Jorge Lanchas Rivero jn. Nafarroako ikastetxe pribatuetako entitate titularren ordezkaria (ANEG-FERE) Lourdes Larunbe Arretxe and. Ikastetxeen administrazioiko eta zerbitzuetako langileen ordezkaria M^a Paz Murillo Urcelay and. Ikastetxe pribatuetako irakasleen ordezkaria (FETE-UGT) Amilcar Quinatoa Quinatoa jn. Ikastetxe publikoetako ikasleen ordezkaria Paloma Virseda Chamorro and. Unibertsitateen ordezkaria (NUP)</p>	<p>finkatu zituen. 2/2006 Lege Organikoaren⁴ 6.4 artikularekin bat, Nafarroako Gobernuak maila horien curriculumak ezarri zituen: martxoaren 19ko 22/2007 Foru Dekretuaren⁵ bidez oinarrizko eta erdiko mailetakoa eta ekainaren 2ko 58/2008 Foru Dekretuaren⁶ bidez maila aurreratukoa.</p> <p>Hizkuntza irakaskuntzetako C1 eta C2 maila dagokienez, aipatutako errege dekretuaren xedapen gehigarrietan bigarrenak esaten du hizkuntza eskola ofizialek C1 eta C2 mailako kurtsoak antolatu eta ematen ahalko dituztela, Hizkuntzetarako Europako erreferentzia marko bateratuan maila horietarako zehaztutakoaren arabera eta kasuan kasuko hezkuntza administrazioek xedatzen dituzten baldintzetan.</p>
---	--

2. ARAUAREN JUSTIFIKAZIOA

Hezkuntza sistemaren kalitatea hobetze aldera, bigarren hizkuntzak irakasteko baldintza moduan, irakatsiko den hizkuntzan C1 maila izatea eskatzen du Nafarroako Gobernuak. Hartara, hezkuntzaren plangintza egokirako estrategikoa izaki, Hezkuntza Departamentuak ezinbestekotzat jo du C1 mailaren curriculuma ezartzea Nafarroako Foru Komunitateko hizkuntza eskola ofizialetan irakasten diren hizkuntza arautuetarako.

⁴ 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa.

⁵ 22/2007 FORU DEKRETUA, martxoaren 19koa, Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoaren araubide bereziko hizkuntza irakaskuntzen oinarrizko eta erdiko mailako curriculuma Nafarroako Foru Komunitaterako ezartzen duena.

⁶ 58/2008 FORU DEKRETUA, ekainaren 2koa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren araubide bereziko hizkuntza irakasteko maila aurreratuaren curriculuma ezartzen duena, Nafarroako Foru Komunitatean.

3. FORU DEKRETURAKO EGITASMOAREN DESKRIBAPENA

Irizpenaren xede den foru dekreturako egitasmo honek honako atal hauek ditu: hitzaurrea, bost artikulua, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen. Gainera, bi eranskin ditu: lehenengoak C1eko curriculumeko alderdi komunak jasotzen ditu eta bigarrenak Alemaneko, Euskarako, Frantseseko eta Ingeleseko C1 mailako berariazko kurtsoetarako gutxieneko hizkuntza edukiak azaltzen ditu.

Hitzaurrean araudiko aurrekariak aipatu eta arauaren interesa eta beharra justifikatzen dira.

1. artikulua. Arauaren xedea eta aplikazio esparrua zehazten ditu: hizkuntza irakaskuntzetako C1 mailaren curriculuma ezartzea Nafarroako Foru Komunitatean.

2. artikulua. Helburua azaldu eta irakaskuntza hauek kurtso batean antolatuko direla xedatzen du.

3. artikulua. Irakaskuntza hauetan sartzeko baldintzak eta modalitate desberdinak finkatzen ditu.

4. artikulua. Esaten du curriculuma zehazten duten elementuak zein edukiak foru dekretu honi atxikiriko I. eta II. eranskinetan agertzen direla.

5. artikulua. C1 mailaren ziurtagiria eskuratzeari dagokionez, esaten du Hezkuntza Departamentuak antolatu eta deituriko proba baten bidez lortu beharko dela.

Xedapen indargabetzaileak indarririk gabe uzten ditu foru dekretu honen aurkakoak diren maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

Azken bi xedapenek Hezkuntzako kontseilariari ahalmena ematen diote behar den araudia garatzeko eta arauak noiz hartuko duen indarra xedatzen dute.

4- FORU DEKRETURAKO EGITASMOAREN TESTUARI BURUZKO BESTELAKO GAIAK

Arauko testuari aginduzko justifikazio memoria eta araudiko memoria gehitu zaizkio.

5.- IRADOKIZUNAK ETA OHARRAK

Nafarroako Eskola Kontseiluak bidezkotzat jo du aurkeztutako foru dekreturako egitasmo hau eta, horrenbestez, hura tramitatzearen aldeko irizpena eman du.

Iruñean, 2014ko uztailaren 3an

O. E.

Kontseiluburua

Pedro González Felipe

Idazkaria

Ignacio Iriarte Aristu

NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZAKO KONTSEILARI JN.